Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Itzulpenak digitu hizpide

Ez dira falta bizitza sentitzeko aipamen nabarmenak eta gozamenerako bideak

JON KORTAZAR

Pixkanaka-pixkanaka badoaz euskaraz jaiotako liburuak gaztelaniaz ere beren aurpegiak agertzen. Hizkuntza eta etxe aldaketa horretan nobelek eta oro har kontakizunek nagusitasuna dute. Galdetuko baligute zer itzuli den orain gutxi, seguruenik Katixa Agirreren 'Berriz Zentauro' ('De nuevo Centauro') etorriko litzaiguke burura. Eta beharbada ez genuke buruan izango Nerea Loiola Pikazaren 'Epizentroa' ere itzuli dela gaztelaniara ('Epicentro', pentsatzekoa zenez). Berriki agertu da Eider Rodriguezen 'Materiales de construcción' ere.

Agirrek aurretiaz 'Amek ez dute'/ 'Las madres no' lana eman zuen Tránsito etxean. Loiola Pikazarena Ereinek egin du Euskal Herrian. 'De nuevo Centauro' liburuak oihartzun handia lortu du. Aipamenak ditu 'El País'eko 'S Moda'n, 'Cuadernos Hispanoamericanos'en, 'El Mundo' egunkariko gehigarri kulturalean... batzuk aipatze arren, zeren nahikoa baita argitaletxearen web orriko 'Prentsa' atalean klikatzea, eta bertan ikusten da elkarrizketa ugari izan direla.

Poesiaren itzulpenak

Askoz ere isilago pasa ohi dira gurean, eta esan dezadan kanpoan ere bai, poesia itzulpenak. Eta horregatik, orain gutxi agertu diren liburu bi ekarri nahi nituzke gaur hona. Merkatuaren alorrean, ezin ditugu konparatu literatur genero batek eta besteak duten indarra. Nobelak eta kontakizunak plaza zabalagoa dute gaur egun liburu dendetan eta irakurleen bihotzetan. Zenbat aldiz ez ote dudan nik entzun irakurketa klubetan: «Nik ez dut poesia irakurtzen», «Beldur naiz poesia irakurtzen hastea, ez dut ulertzen».

Dena dela, euskal poesiaren agerpena gaztelaniazko itzulpenetan iraunkorrago gertatu dela esango nuke. Agian arrazoi birengatik: neurri batean, testu kopuruagatik baino ez bada, errazagoa da poesia itzultzea, nobela bateko testu luzea baino; eta sarriago gonbidatzen dituzte egileak poesia errezitaldietara, poesia irakurtzera; poemak irakurri ditzakegu, nobelak, aldiz, osorik ez behintzat. Horrela, irakurraldietara agertzeko, nahiko izaten du poeta batek bost sei testu itzulita izatea.

Merkatuko arrazoiez gain, ene irudiko, poeten arteko bilkurek tradizio handia dutela esango nuke, eta bilkura horietan sortzen diren loturei esker agertzen dira asmoak eta argitalpenak.

Itzulpen berri bi

Balea Zuria argitaletxeko kide diren euskal poeta bik berriki argitaratu dituzte gaztelaniaz beren liburuen itzulpenak. Aritz Gorrotxategiren 'Amua' (2019) eta Pello Otxotekoren 'Itsas bizimina' (2019) ikusi ditugu gure mugen gainetik igarotzen. Otxotekorena 'Sediento de mar' izenburupean agertu zen 2022ko urrian Valentziako 'Pre-textos' editorialean, eta Gorrotxategik 'Señuelo' izenburua jarri dio Gijóneko 'Trea' etxean 2023 urte hasi berrian eman duen bere liburuaren itzulpenari.

Lankide eta argitaletxe bereko kide ez ezik, poesia eskola berekoak direla esan da maiz egile biongatik. «Pentsamenduaren poesia» egiten dutela adierazi dugu usu, eta haiek ere izen bereko poesia jaialdiak egin dituzte, lehenik Durangon eta Donostian ondoren.

Baina badira poeta biren idaztankeran nortasun desberdinen hari batzuk ere. Aritz Gorrotxategiren 'Amua' liburuak badu heriotzaren inguruko arnasketa eta hausnarketarik. Baina ez dira falta bizitza sentitzeko aipamen nabarmenak eta gozamenerako bideak. Bizi giroz, sentsualitatez osaturiko bertsoak ez dira falta, filosofo klasikoen aipamenen artean. Pentsakizunari lotuagoa ikusi dut Pello Otxotekoren liburua, tinkoa analogia baten inguruan, itsasoaren esanahi pertsonala osatzeko asmotan.

Itzulpenak direla eta, batzuetan euskararen arnasa entzun dut gaztelania horren azpitik, eta ziurrenik asmatuko nuke itzulpen biok etorkizuna izango dutela aipamen munduan eta irakurleen zaletasunean.

Ernaberritzen

JON MARTIN-ETXEBESTER

Zauriaren gaineko orbana da Castillo Suarezen azken liburua. Iraganean maitatutako pertsonaren hutsuneak habitatzen ditu orainaldiko harreman guztiak. Istorio hark markatu zuen ahots nagusiaren nortasuna eta giza harremanak mingarri zaizkio geroztik. Naturarekin harmonian bizi da, ordea, poema liburuko ahots nagusia; eta hura du sosegu, hura babes. Botanikako erreferentzietan bereziki aberatsa da Suarezen idazkera. Inausitako zuhaixka marrazten du poetak: lurrari sustraitua, noizean behin ernamuinak sortzera derrigortua; baina bete-betean hostoz betetzeko behar adinako konfiantzarik gabe. Txankroz betetzen da bere azala batzuetan, eta lore-pipilek bere zintzurreraino eskalatzen dute besteetan.

53 poema labur biltzen ditu liburu honek. Desamodioaz eta desadiskidantzaz diharduten poema ulergarriak dira bereak. 'Irautera' bere aurreko liburuaren jarraipentzat har daiteke. Orduko mina gordinagoa zen; oraingo dolua, berriz, etsipenaren eta onarpenaren fasean kokatzen da eta dagoeneko ahotsaren zati kontsolidatua da. Nolabait esan daiteke sentipenak bi urtarotan sailkatu dituela idazleak. Irakurleak erabaki garrantzitsua hartu beharko du: liburuko sarrera irakurri edo ez. Izan ere, bere poemak interpretatzeko jarraibideak ematen ditu poetak bertan: Bikotekidearekin harremana etetearekin bat, lagun komunekiko harremana ere eten duen pertsona baten azalean kokatzen du irakurlea; bizitza berregiten ari den pertsona baten lekuan. Poema batean adierazten du badakiela «lagunak eta ardurak galtzen, doluarekin bizitzen», eta ohitu dela «bihotz kontra bizitzen». Beste batean, berriz, bakardadeari beldurra galdu diola dio, «baina bakardade horri kateatuta» bizitzea dagokiola orain. Poetaren ahotsak iratze-lastaira batean etzanda dagoen behor izubera dirudi, baina izakiari behar bezain gertutik begiratzen dionak behor basatia topatuko du.



ALASKA
CASTILLO SUAREZ
Elkar. 72 or. 13,50 euro

LABUR LABUR

Loraldia Bilbora bueltatu da, 21 proposamenekin

JAN ECHEVARRÍA

Euskaraz sortutako kultur adierazpen anitzez jantzitako Loraldia Festibalaren 9. edizioa ostegunean hasi zen eta martxoaren 26ra bitarte ospatuko da, 'Mailua gara!' lelopean.

Antolatzaileek iragarri dutenez, jaialdiak 21 ekoizpen propio bilduko ditu Bilboko 14 gune ezberdinetan. Hala, musika, antzerkia, dantza, literatura, bertsolaritza, ikus-entzunezkoak... Denetarik eskainiko dute eta diziplina ezberdinen arteko fusioa ere egongo da. Guztira, 150 artista inguruk parte hartuko dute.

«Loraldiaren oinarriari jarraituz, euskal kulturako izen erreferenteak presente izango ditugu: Gabriel Aresti, Benito Lertxundi, Maurizia... besteak beste. Horiez gain, gaur egungo beste sortzaile aipagarri batzuk ere izango dira: Kukai Dantza Konpainia, Igor Elorza, Rafa Rueda, Castillo Suárez, Inés Osinaga, Iratxe Fresneda, Danele Sarriugarte...; eta sortzaile berri eta gazteak ere bai: Formol, Silitia...», diote antolatzaileek.

'Alaska' ikuskizunaren promozio irudia.

Gainera, 9. edizioan iaz hasitako ildoari jarraituko diotela adierazi dute, Loraldia Terminala eguna ospatuz, gazte-sormenari eremua eta plaza eskaintzen diona. Bertan, Loraldiak ekitaldi honetarako espresuki sortutako hainbat ekoizpen aurkeztuko ditu.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 **33 ezkil**
Miren Gorrotxategi. Elkar

2 **Kolosala izango da**
Joseba Sarrionaindia. Txalaparta

3 **Eraikuntzarako materiala**
Eider Rodriguez. Susa

4 **Miñan**
Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

EZ FIKZIOA

1 **Egunero behar genuen**
Imanol Murua. Elkar

2 **Axularen gerizapean**
Kepa Altonaga. Pamiela

3 **Pantailaren garaipena**
Iñigo Martinez. Elkar

4 **Euskal herriko 40 emakume**
Batzuk. Beta ediciones